

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-5170

4/1996 LEGEA, urriaren 11koa, «Euskal Irrati Telebista» Herri Erakundea sortzeko Legea (maiatzaren 20ko 5/1982 Legea) eraberritzekoa, EITBko zuzendari nagusiaren izendapenari eta kargu-uzteari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

**URRIAREN 11KO 4/1996 LEGEA, «EUSKAL IRRATI TELEBISTA» HERRI ERAKUNDEA SORTZEKO LEGEA
(MAIATZAREN 20KO 5/1982 LEGEA)
ERABERRITZEKOA, EITB-KO ZUZENDARI
NAGUSIAREN IZENDAPENARI ETA
KARGU-UZTEARI BURUZKOA.**

1. atala.-

«Euskal Irrati Telebista» Erakundea Sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legeko 16. atala aldatu eta honela gelditzen da:

1.- Zuzendari nagusia Jaurlaritzak proposatu eta Legebiltzarrak hautatuko du, eta proposamena onartzeko, legebiltzarkideen erdien gehi bat gehiagoren aldeko botoak beharko dira, gutxienez. Behin hautaketa eginik, lehendakariaren dekretu bidez izendatuko da zuzendari nagusia.

2.- Honako hauetan izango dira zuzendari nagusiaren egitekoak:

a) Lege honek, lege hau osatzeko arau-bidezko manuek, eta, hala egokituz gero, oinarrizko edo osatzebidezko legepide direnez erabilgarri eta nahitaez bete beharreko izan daitezenek, agintzen dutena betetzea eta betearaztea.

b) Arduralaritza Batzordeak bere agintepeko gaietan har ditzan erabakiak betetzea eta betearaztea.

c) Arduralaritza Batzordeari, onar dezan, herri-erakundearen ekintzapide-egitamua aurkeztea, eta baita haren menpeko baltzu eta enpresenak eta esandako ekintzapide-egitamu horien egiterapenari buruzko urteko txostena ere.

d) Diruegitamuen aintzin-egitasmoa batzordeari onar dezan aurkeztu, lan-sariak eta aurreko zatian esandako egitamuak egiteratzeko ohartemandako gastu eta diru-eskuraketak barne daramatzala, esandako batzorde horrek emankizun-egitarauari buruz ontzat emandako oinarri-iritzia eta orotariko bideak kontutan izanik eta horrezazko zehaztapen-txostenarekin batean, hori guztiori bai herri-erakundeari berari bai horren menpeko baltzuei dagokila.

e) Akurapen-sail gisa ihardun eta herri-erakundearen eta bere baltzuen ordainketa eta gastuetarako baimena eman.

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-5170

LEY 4/1996, de 11 de octubre, de reforma de la Ley de creación del Ente Público «Radio Televisión Vasca» (Ley 5/1982, de 20 de mayo), referente a nombramiento y cese del Director General de EITB.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

**LEY 4/1996, DE 11 DE OCTUBRE, DE
REFORMA DE LA LEY DE CREACIÓN DEL ENTE
PÚBLICO «RADIO TELEVISIÓN VASCA»
(LEY 5/1982, DE 20 DE MAYO), REFERENTE
A NOMBRAMIENTO Y CESE DEL DIRECTOR
GENERAL DE EITB.**

Artículo 1.-

Se modifica el artículo 16 de la Ley 5/1982, de 20 de mayo, de creación del Ente Público «Radio Televisión Vasca», en los siguientes términos:

1.- El Director General será elegido por el Parlamento, a propuesta del Gobierno, que deberá ser aprobada con el voto favorable de, al menos, la mitad más uno de los parlamentarios. Producida la elección, el Director General será nombrado por decreto del Lehendakari.

2.- Serán funciones del Director General:

a) Cumplir y hacer cumplir lo dispuesto en la presente ley y en las disposiciones normativas que la desarrollen, y, en su caso, las que como derecho básico o supletorio sean de aplicación o de obligado cumplimiento.

b) Cumplir y hacer cumplir los acuerdos del consejo de administración en las materias que sean de competencia de este órgano.

c) Someter a la aprobación del consejo de administración el plan de actividades del ente público, así como los planes de actuación de las sociedades y empresas que dependan de aquél, así como la memoria anual relativa al desarrollo de los planes de actividades antes citados.

d) Formalizar y presentar a la aprobación del consejo el anteproyecto de presupuestos que comprenda la retribución del personal y los gastos e ingresos previstos para desarrollar los planes citados en el apartado anterior, habida cuenta de los principios básicos y líneas generales de la programación aprobados por el citado consejo, acompañados de la correspondiente memoria explicativa, todo ello referido tanto al ente público como a las sociedades que del mismo dependan.

e) Actuar como órgano de contratación, así como autorizar los pagos y gastos del ente público y de sus sociedades.

f) Arduralaritza Batzordeari herri-erakundearen eta bere baltzuen ihardute-egitura aurkeztea, onar dezan, eta bai herri-erakundeko eta bere baltzuetako artezkaritzakoak lanbide-gaitasunari begira izendatzea ere, izendapen horiek aurrez Arduralaritza Batzordeari ezagutaraziz.

g) Herri-erakundearen eta bere baltzuen iharduna berma dezaten nolanahiko zerbitzuak eratzea, bideratzea, indartzea, antolakidetzea eta arakatzea, horretarako beharrezko eta aski izan daitezen arau eta oharpi-deak eman ditzakeela, hori guztiori Arduralaritza Batzordeari dagozkion eskubideen kaltetan gabe.

3.- Irratsaioak bi hizkuntzetan egingo direla kontuan izanik, Autonomi Elkartearen oficial diren bi hizkuntzez aski jabetuta egoteari balioa emango zaio.

2. atala.-

«Euskal Irrati Telebista» Erakundearen Sortzearen maiatzaren 20ko 5/1982 Legeko 19. atala aldatu eta honela gelditzen da:

1.- Eusko Jaurlaritzari dagokio zuzendari nagusiaren kargu-uztea proposatzea, horretarako arrazoia adieraziz. Behin kargu-uztea Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkideen erdiek gehi bat gehiagok onarturik, Eusko Jaurlaritzak kargu-uzteari buruzko dekretua onartuko du.

2.- Administrazio Kontseiluak ahalmena izango du, bi hereneko gehiengoarekin, zuzendari nagusiaren kargu-uztea proposatzeko, ondorengo kasuren bat gertatuz gero:

- a) Kargua betetzeko bateraezintasunen batean erortzea.
- b) Errenkako sei hilabetetik gora dirauen ezintasun fisiko edo eritasuna edukitzea.
- c) Gaitasun falta nabarmena izatea edo lege honetan jasotako irizpide, printzipio edo helburuen kontra jokatzea.
- d) Engainuzko delituagatik kondenatua izatea.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabeturik geratzen da «Euskal Irrati Telebista» Herri Erakundearen Sortzearen maiatzaren 20ko 5/1982 Legeko 8. atalaren 2. azpiataleko a) letra.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko urriak 21.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

f) Proponer para su aprobación por el consejo de administración el organigrama del ente público y sus sociedades, así como nombrar con criterios de profesionalidad al personal directivo del ente público y de sus sociedades, notificando con carácter previo dichos nombramientos al consejo de administración.

g) Establecer, orientar, impulsar, coordinar e inspeccionar los servicios de toda índole que aseguran el funcionamiento del ente público y de sus sociedades, pudiendo al efecto establecer las normas e instrucciones necesarias y suficientes para los fines expresados, todo ello sin menoscabo de las facultades que correspondan al consejo de administración.

3.- Teniendo en cuenta que el desarrollo de los programas será bilingüe, para la designación del Director General se valorarán los conocimientos suficientes de los idiomas oficiales en la Comunidad Autónoma.

Artículo 2.-

Se modifica el artículo 19 de la Ley 5/1982, de 20 de mayo, de creación del Ente Público «Radio Televisión Vasca», en los siguientes términos:

1.- Corresponde al Gobierno Vasco proponer el cese del Director General, que deberá ser motivado. Despues de la aprobación del cese por el Parlamento Vasco, al menos por la mitad más uno de los parlamentarios, el Gobierno Vasco aprobará el correspondiente decreto de cese.

2.- El consejo de administración podrá proponer al Gobierno, por mayoría de dos tercios, el cese del Director General cuando concurra alguna de las siguientes causas:

- a) Incurrir en incompatibilidad para el ejercicio del cargo.
- b) Imposibilidad física o enfermedad superior en su duración a seis meses continuos.
- c) Incompetencia manifiesta o actuación contraria a los criterios, principios u objetivos a los que se refiere la presente ley.
- d) Condena por delito doloso.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la letra a) del apartado 2 del artículo 8 de la Ley 5/1982, de 20 de mayo, de creación del Ente Público «Radio Televisión Vasca».

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de octubre de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.